

ARAIZKO KABLEAREN EGUNA 2025 (IRAILAK 20):

Datorren larunbatean, irailak 20, Malloko belarra garraiatzeko sistema zaharra oroitzeko asmoa duen ekitaldi berezi honen zortzigarren edizioa egingen da Gaintzan, Araizko bailaran.

2017an, arazitarren ekimenez, eta **Araitzeko Udalarekin** eta **Araizko Zaporeak** elkarrearekin lankidetzan, Araizko bailarak bere ondare-elementu berezienetako bat berreskuratu zuten: belarra Malloko zelaietatik bailarako baserrietara jaisteko kable-sistema.

Egun honek helburu garrantzitsuak ditu, belaunaldi berriei transmititu nahi zaizkienak:

- Bailarako landa eta natura ondarea berreskuratzea eta sustatzea.
- Baserritarren kultura eta, horrekin batera, baserrietako nekazaritzako elikagai osasuntsuen ekoizpena ikustaraztea eta zabaltzea.
- Araizko bailarako kultur eta turismo sustapena, bailarako eta zonalde osoko turismoa bultzatuz, landetxe, zerbitzu, jatetxe eta abarren bidez.

Iaz erakusketa- eta dibulgazio-gune txiki bat eraiki zuten, begiratoki gisa, bisitariak Araizko kableen historia eta funtzionamendua zein Malloaren ingurune naturala eta kulturala modu autonomoan ezagutzeko eta interpretatzeko aukera izan dezaten. Behatoki hori Gaintzan dago, lehengo kableetako bat berreskuratu den toki berean.

Hori guztia proiektu handiago batean sartzen da, eta Araizko Udala eta Araizko Zaporeak elkartea lanean ari dira Malloko ondare historiko, kultural, etnografiko eta naturalari balioa emateko eta, aldi berean, ahalik eta ongien kudeatzeko. Gainera, iniazitiba horren barne, Udalerria **Nafarroa Ezagutu Sarean** sartu da.

Programa

Urtero bezala, Gaintza herrian emango zaio hasiera , 10:30ean plazan. Bertan, kableruntz abiatu aurretik, ongi etorria emanen da, Araizko kableei eta berreskuratzeari buruzko azalpen orokorrekin. Gero, taldean, ibilaldi polit bat eginez 1,5 kilometro igoko dira, 150 metroko desnibelarekin, kablea berreskuratu den lekuraino (Zezelain).

Toki honetan, 11:30ean sega nola pikatu, belarra nola moztu eta buxiak nola prestatzen ziren erakutsiko dute, ondoren belar-fardo hauek kablean behera botatzeko. Aurreko mendeko 20 eta 70eko hamarkaden artean Malloan hain ohikoa zen lana erakutsiz.

Ondoren, 13:00ak aldera bertako produktuekin egindako pintxoak eta edariak jarriko dituzte dastatzeko. Aperitiboaren ondoren Gaintzako Sonbelu Elkartean antolatu dute bazkaria 14:30ean (20€ helduak eta 12€ haurrak. Txartelak jada, salgai daude Arribeko Surtidorean).

Oinez igotzeko zailtasuna dutenentzat ibilgailuz igotzeko modua izango da. Gaztelera eta zeinu hizkuntzara ere itzuko dira ekitaldiko azalpenak.



**ARAIZKO
UDALA**



Malloko kablearen behatokia

Interpretazio eta erakusketa espazio txiki bat da, *Zezelain* izeneko inguruan kokatua, berreskuratutako kablearen ondoan.

Material tradizionalaz/naturalez egindako eraikuntza ekologikoa da, egurrezkoa eta, beraz, bisitariei babesa emateko prestatua dago. Espazioa bera irekia da, eta erakusketa-gune bat, biltegi txiki bat eta bainu-lehor konpostagarri bat ditu. Guztira, 50 m².

Bost azalpen-panelek osatzen dute erakusketa, eta horietan askotariko informazioa ilustratua dago, testu laburrekin eta QR kodekin. Hauen bidez interneten dagoen informazio zabala eta interesgarria lortu daiteke. Edukiek Malloko ezaugarri nagusiak islatzen dituzte: biodibertsitatea, bizimodu eta aprobeitxamendu tradizionalak (artzaintza, karobia, bideak, teileria, kableen sistema, etab.), inguruko fauna eta natura, ekosistemen hauskortasuna, etab.

Modu autonomoan bisitatzeko pentsatua dago, eta hainbat eduki bereziz landu dira, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako irakurketa erraztuz.

Behatokiaren proiektua Nafarroako Gobernuak finantzatu du.

Jarduera hau **Araizko Udalak** eta **Araizko Zaporeak** elkarteak antolatzen dute, eta **Plazaola Partzuergo Turistikoaren** laguntza du.

Arriben (Araitz), 2025eko irailaren 15ean.

Informazio gehiago: <https://araitz.eus/araizko-kablearen-eguna/>

Harremanetarako: 717.708.828 (Asier)

